

Lopez Carrillok bere bertsioari eutsi dio Argotek egindako galdeketa gogorrean

Defentsako abokatuak goiz osoa eman zuen kontraesanik txikienaren bila

Eider Goenaga / Madril
Berriemaile berezia

Angel Lopez Carrillo lekukoak jarraitu zuen atzo deklaratzeko. Iragan ostiralean hasi zuten abokatuek Lopez Carrilloren galdeketa, eta atzo goizean Jorge Argotek jarraitu zuen. Argote, baina, luze aritu zen lan horretan, eta gai beraren inguruan behin eta berriro itaundu zuen, kontraesan txikienaren bila. Angel Lopez Carrillok iragan ostiralean emaniko bertsioari eutsi zion, Argotek zorabiatzea lortu zuen arren.

JORGE ARGOTE abokatuak galdeketa gogorra egin zion atzo Angel Lopez Carrillo poliziari, haren bertsioan kontraesanak atera nahian. Horretarako, orain arte lekuko guztiekin baliatutako estrategia baliatu zuen: lekukoak aurretik deklaraturakoa eta beste lekukoek esaten dutena erabiltzea lekukoa nahasteko.

Lehen galderak poliziak Iparraldean egiten zuen lanaren ingurukoak izan ziren. Lopez Carrilloren arabera, Espainiako Poliziak talde bat zuen Iparraldean lan egiteko, eta hura kontaktuan jarri zen Frantziako Poliziako hainbat kiderekin, haien bidez errefuxiatuei buruzko informazioa biltzeko. Lopez Carrilloren arabera, Guy Metze poliziari Eugenio Etxebeste, Txomin Iturbe eta Juan Lorenzo Lasa Mitxelena bahitzea proposatu zioten.

Argotek proposamen hori Lopez Carrillok bere kabuz egin zuela frogatu nahi izan zuen bere galderekin, baina Lopez Carrillok bereari eutsi zion. «Nik aginduak jaso nituen proposamen hori egiteko, eta ahal izanez gero bahiketa iradokitzeke esan zidaten. Paulino Garcia berak eman zidan agindua, eta nik hala egin nuen», adierazi zuen, aurreko ostiralean esandakoa berretsiz. Lopez Carrillok ostiralean esan zenez, Elgorriagak ere izan zuen bilera bat Guy Metzekin Gobernu Zibilean bertan, gai horri buruz hitz egiteko.

Argotek zalantzan jarri nahi izan zuen Lopez Carrillo-



TVE / EFE

Angel Lopez Carrillo polizia ostiralean hasi zen lekuko gisa deklaratzeko eta atzo amaitu zuen.

Andres Casinello «ZEN planaren ideologo handiena» izan zela dio Lopez Carrillok

■ ANDRES CASINELLO jeneralak gertutik jarraitzen du *Lasa-Zabala auzia*, eta egunero joaten da Entzutegi Nazionalera. Atzo Angel Lopez Carrillok haren izena aipatu zuen: ZEN plana hark egin zuela adierazi zuen, eta plan horrek argitaratu eman ez zen zati ezkutu bat zuela.

Iparralderako muga pasatzea eta han

errefuxiatuen inguruko ekintzak egitea ZEN planaren barruan sartzen zela adierazi zuen Angel Lopez Carrillok iragan ostiralean, eta atzo Casinello jeneralari egotzi zion plangintza hori egitea, hura ikusleen artean zegoela. «Casinello izan zen ZEN plangintzaren ideologo handiena, eta baita beste zenbait

plangintzarena ere. ZEN planak haren filosofiari jarraitzen zion, eta Casinellok berak oso ongi laburtu zuen filosofia hori: 'Nahiago dut gerra, Euskal Herriaren independentzia baino, eta nahiago dut ETA KAS alternatiba baino', azaldu zuen Lopez Carrillok. Bestalde, adierazi zuen planak zati ezkutu

bat zuela, eta CESI-Dek egin zela zati hori.

Andres Casinello jeneralak gerra zikinaren ideologo nagusietako bat izan zela agertu izan da hainbat komunikabidetan, baina ez dute prozesu bakar batean ere auzipetu. Lopez Carrillok ez zuen hori esplizituki esan, baina ideia hori airean utzi zuen.

ren sinesgarritasuna, haren bertsio osoa gezurtatzeko: hala nola, Lopez Carrillo ez zela Galindo eta Elgorriagarekin izan bahiketako gauean, eta haien ahotik ezin izan zuela Lasa eta Zabalar buruzko ezer entzun; Cumbre Jauregiari buruz zekiena aurretik egon zelako zekiela, eta frogak gisa aurkeztutako giltzak ez zirela Cumbreakoak. Horretarako, Lopez Carrillok instrukzioan egindako deklarazioak hartu zituen oinarri, lekukoak bere deklarazioari egindako hainbat zuzenketa kontraesantzat aurkeztu

nahian. Argotek lekukoaren kirioak dantzan jartzea lortu zuen, baina ez aurretik emandako bertsiotik urruntzea.

Bost ordu kontraesanen bila

Ostiralekoa kontuan hartuz, Argotek bost orduko itaunketa egin dio Angel Lopez Carrillo, eta hori nabaria zen atzo lekukoarengan. Argotek hainbat eratan egiten zion galdera bera, eta lekukoa bere onetik atera zuen behin baino gehiagotan. «Galderak zureak dira, baina erantzun-

ak nireak, eta kontraesanik dagoen edo ez epaimahaiak erabaki behar du», erantzun zion behin baino gehiagotan Lopez Carrillok defentsako abokatuari. Epaimahaiburuak halako erantzunik ez zuela onartzen esan zion Lopez Carrillok: «Defentsaren estrategia aztertzen ez naiz hasiko, baina lekukoa nekatzea lortu duzu azkenean». Hala, epaimahaiak saioa eten zuen arratsaldean, eta arratsaldean amaitu zuen Carrillok deklarazioa.

Gaurtik aurrera Intxaurrendoko guardia zibilek deklaratu dute

E.G. / Madril

LASA ETA ZABALA auziko lekukoaren zerrenda luzea da oso, ehundik gora dira guztira, eta hasi baino ez dira egin. Angel Lopez Carrillo poliziaren ondotik, Julio Vazquez Ayra eta Rafael Barranco Espainiako polizia dagokie txanda, eta ondoren 80ko hamarkadan Intxaurrendon egon ziren guardia zibilek deklaratu dute.

Vazquez Ayra Lopez Carrillok esandakoa berresten du. Haren arabera, egia da bahiketa gertatu zen gauean Lopez Carrillo Enrique Rodriguez Galindo eta Julen Elgorriagarekin itzuli zela Donostiara, eta baita Sorluzen geldialdi bat egin zutela, Galindok telefonoz deitu zezan. Barranco ere Lopez Carrilloren lankidea zen garai hartan, baina ez da ziurra horrek zer deklaratu duen. «Duela hiru egun hitz egin zuen Barrancorekin, eta esan zidan bere buruaz beste egin nahi zuela, eta ez ziola orain arte deklaraturakoa auziko», azaldu zuen atzo Lopez Carrillo lekukoak.

Haien atzetik, besteak beste, Gumersindo Hernandez, Luis Sandoval, Jose Dominguez Tuda, Francisco Hermida eta Pedro Gomez Nieto guardia zibilek deklaratu dute. Hermida, Sandoval eta Gomez Nieto guardia zibilek lekuko gisa deklaratu dute, baina gogoratu kasu honetan auzipetuak egon zirela. Izan ere, Pedro Luis Migueliz Txofa lekuko babestuak dioenez, Enrique Doradok berak kontatu zion Hermida eta Sandoval joan zirela Bayo eta berekin Iparraldera Joxean Lasa eta Joxi Zabala bahitza. Bi gaurdia zibilek, baina, akusatuen aulkian ez esertzea lortu zuten, bahiketa geratu zen gauean beste leku batean zuekela zioen paper bat aurkeztuz. Pedro Gomez Nieto auzipetzeko eskuizkribu bat erabili zuen Javier Gomez de Liaño epaimahaiak, baina beranduago egindako frogak kaligrafikoek ezin izan zuten frogatu idatzia Gomez Nietok idatzia zela.